



Erresidentziak

UGT Informa

UGT PROPONE UNA SANIDAD PÚBLICA INTEGRAL BASADA EN EQUIPOS MULTIDISCIPLINARES PARA SUPLIR LA CARENCIA DE PROFESIONALES

El sindicato valora positivamente el diagnóstico común y considera “fundamental” la siguiente fase para solucionar los problemas detectados.

Tras participar en la segunda reunión del Pacto Vasco de Salud reunido hoy en Donostia, la secretaria general de UGT Zerbitzu Publikoak, Arantza Agote, ha reiterado que Osakidetza requiere de “cambios estructurales que permitan abordar los desafíos a los que nos enfrentamos”. En este sentido, y con la vocación de “defensa y mejora” de la sanidad pública, el sindicato ha valorado positivamente el “diagnóstico compartido”, que recoge también las aportaciones de UGT, pero considera “fundamental” la siguiente fase, que deberá diseñar “estrategias para dar solución a los problemas detectados”.

El eje de las propuestas del sindicato, ha explicado Agote, consiste en una “renovación profunda del sistema sanitario” que pasaría por hitos como la redistribución de funciones “liberando la sobrecarga del personal médico y de enfermería”, la reorganización de tareas entre distintas áreas; o la creación de nuevas categorías profesionales. Todo esto, ha asegurado, posibilitaría “una sanidad pública integral con gestión directa y basada en equipos multidisciplinares, donde tengan cabida y se complementen todas las categorías”. Así, se mejoraría la coordinación de servicios y, en cierta medida, podría suplir algunas carencias de profesionales.

Para UGT, estos cambios estructurales también pasan por la contratación de más personal que, además, debería acompañarse de una “apuesta por la formación continua” en áreas clave como las enfermedades crónicas, el cuidado de personas mayores o el uso de las nuevas tecnologías, “porque no se trata solo de aumentar plantilla, sino prepararla adecuadamente para los retos presentes y futuros”.

La responsable de Servicios Públicos de UGT-Euskadi también ha subrayado la necesidad de reformar la atención a la salud mental, “uno de los grandes desafíos de la sociedad actual, y hace falta más personal y más recursos”. Así, ha demandado la contratación de especialistas en psicología y psiquiatría, “fundamentales para cubrir una demanda que no para de crecer”.

Voz a la parte social

Asimismo, Agote ha exigido que el diálogo social se abra de a la inclusión real de sindicatos y profesionales del sector, “dando voz a la parte social para que participe en las decisiones sobre cómo se distribuyen los recursos”. Para ello, es clave que se aumente “significativamente” la inversión en Osakidetza, principalmente en “campos con la atención primaria, o la geriatría, que son y serán cada vez más trascendentales”.

Finalmente, en el ámbito laboral, la organización sindical también ha apremiado a revertir la externalización de servicios como el transporte sanitario, la limpieza o la odontología, recordando que “las empresas privadas priorizan sus beneficios sobre la calidad del servicio”. Todas estas propuestas, ha concluido, “buscan no solo fortalecer el sistema sanitario, sino hacerlo más justo, equitativo, y sostenible a largo plazo”.

UGT-Zerbitzu Publikoak

Colón de Larreátegui, 46 BIS 7º -48011 BILBAO. Tel.: +34 944 255 612

www.euskadi.ugt-sp.es




Erresidentziak

UGTK DIZIPLINA ANITZEKO TALDEETAN OINARRITUTAKO OSASUN PUBLIKO INTEGRALA PROPOSATU DU PROFESIONALEN FALTA ORDEZKATZEKO

Sindikatuak baikor hartu du diagnostiko partekatua eta “ezinbestekoa” deritzo hurrengo faseari, non antzemandako arazoei konponbidea eman beharko zaien

Euskal Osasun Itunaren bigarren bileran parte hartu ondoren, UGT Zerbitzu Publikoen idazkari nagusi Arantza Agotek berretsi du Osakidetza "egiturazko aldaketak" behar dituela, "aurrean ditugun erronken aurrean". Ildo horretan, eta osasun publikoa "defendatzeko eta hobetzeko" helburuarekin, sindikatuak positibotzat jo du "diagnostiko partekatua", UGTren ekarpenak ere biltzen dituena, baina "ezinbestekoa" deritzo hurrengo faseari, zeinetan "antzeman ditugun arazoei konponbidea emateko estrategiak" diseinatu beharko ditugu.

Sindikatuak eginiko proposamen nagusia, Agotek azaldu duenez, "osasun-sistemaren berritze sakon batean" datza. Horretarako, eginkizunak birbanatu beharko lirake "medikuen eta erizainen gainkarga gutxituz", hainbat arloren artean zereginak berrantolatu eta lanbide-kategoria berriak sortu. Horrek guztiak "osasun publiko integrala ahalbidetuko luke, zuzeneko kudeaketarekin eta diziplina anitzeko taldeetan oinarrituta, kategoriatuak barne hartuta eta elkar osatuta". Horrela, zerbitzuen koordinazioa hobetuko litzateke eta, neurri batean, profesional batzuen falta ordezkatu.

UGTren ustez, egiturazko aldaketa horiek langile gehiago kontratatzea ere eskatzen dute, eta horrekin batera, "etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua" egin beharko litzateke funtsezko arloetan, hala nola gaixotasun kronikoetan, adinekoen zaintzan edo teknologia berrien erabileran, "kontua ez baita soilik plantilla handitzea, baizik eta egungo eta etorkizuneko erronketarako behar bezala prestatzea".

UGT-Euskadiko Zerbitzu Publikoetako arduradunak osasun mentalerako arreta eraldatzeko beharra ere azpimarratu du, "egungo gizartearen erronka handienetako bat baita, eta langile zein baliabide gehiago behar dira". Hala, psikologiako eta psikiatriako espezialistak kontratatzeke eskatu du, "funtsezkoak baitira handituz doan eskaera bati erantzuteko".

Ahotsa profesionaleri eta sindikatuei

Era berean, Agotek elkarrizketa soziala eskatu du, sindikatuen eta sektoreko profesionalen parte-hartzea sustatuz, "benetako ahotsa emanez, baliabideak banatzeko erabakietan parte har dezaten". Horretarako, funtsezkoa da Osakidetza inbertsioa "nabarmen" handitzea, batez ere "lehen mailako arretarekin edo geriatriarekin lotutako eremuetan, gero eta garrantzitsuagoak direlako eta izango direlako".

Azkenik, lan-esparruan, sindikatuak premiazkoa deritzo zerbitzuak kanporatzeko joeran atzera egiteari, garraio sanitarioa, garbiketa edo odontologia bezalako zerbitzuetan. Izan ere, gogorarazi du "enpresa pribatuek zerbitzuaren kalitatearen gaitetik beren onurak lehenesten" dituztela. Proposamen horiek guztiek "osasun-sistema indartzea ez ezik, bidezkoagoa, zuzenagoa eta epe luzerako sostengarriagoa egitea" dute helburu.

UGT-Zerbitzu Publikoak

Colón de Larreaétegui, 46 BIS 7º -48011 BILBAO. Tel.: +34 944 255 612

www.euskadi.ugt-sp.es
